

# OBABAKOAK

## 25.URTEURRENA

KLASIKOEN VI. IRAKURRALDI ETENIK GABEA

2013. 06. 20




08:00 – 20:00 // ARRIAGA ANTZOKIA

**Antolatzailea: BILBO ZAHARRA euskaltegia**

***Lankideok:***

*Aurten ere ezinbestekoa izango dugu guztion inplikazioa girotze-lana egin eta ikasleen parte-hartzea ziurtatzeko. Horretarako lagungarri izango delakoan, hona hemen liburuaren gaineko jarduera-sekuentzia, 2. eta 3. mailetan egiteko modukoa.*

---



## HELBURU NAGUSIAK

- Klasikoen 6. irakurketa jarraitua euskaltegia girotea.
- Obabakoak klasikoa ikasleei ezagutaraztea.
- Obabakoak bere garaian kokatzea.
- Liburuaren zenbait ipuin eta pasarte irakurriz gozatzea.
- Atxagaz beraz ere zerbait gehiago ikastea.
- Liburuak lantzen dituen gai nagusiez jardutea eta gogoeta egitea.
- Ipuin-lehiaketa. Nahi duten ikasleek aukera izango dute lehiaketan parte hartu eta sari potoloak lortzeko.

## JARDUERA SEKUENTZIA


0. Arriaga Antzokian ekainaren 20an egingo den irakurketaren aurkezpena.
1. Liburuaren lehenengo edizioa. Informazioa jaso eta ulermena neurtu. Mintzamina taldean.
2. Atxaga. Biografia irakurri eta egia/gezurra ariketa egin.
3. Obabakoak: hiru iruzkin. Liburuaren zenbait aurkezpen dituzte irakurgai, elkarri kontatzeko, nolabaiteko hurbilketa egitea helburu.
4. Obaba.
 

Sormen ariketa: definitu Obaba 5 zentzumenak erabiliz.

  - 4.1. *Obabatxoa. Izenburuaren sorrera, Atxagak kontatua.*  
*Sehaska kanta entzun.*
  - 4.2. *Muskerrarena: istorioa irakurri eta mintzamina.*
  - 4.3. *Obaba eta Bilbo.*
    - *Bata eta bestearen gaineko irudikapena egin, eta ideiak alderatu, taldeka.*
    - *“Berandu dabilta” entzun. Ruper Ordorika. Eskatu ikasleei aukeratzeko gustukoak duten pasarteak. Eta arrazoia emateko.*
  - 4.4. *Villamediana-irla.* Irakurri ipuin-pasarteak. Hitz-gakoak eta arrazoiak atera.
5. Villamediana-irla.
  - Pasartearen egitura ereduak hartuta, antzeko beste bat sortu, bakarka.
6. Ipuin bat, bi bertso...edo hiru.
  - “Gauero aterako nintzateke paseatzera” Binaka jarrita, ipuinaren azalpen bana irakurriko dute eta ondoren elkarri kontatu.
  - Pertsonaia batzuk bi ipuinetan aterako dira. Ikasleek zein diren adierazi eta bi bertsoak elkarreaginean jarrita euren azalpena III. AZALPENA egingo dute labur-labur, taldeka idatziz.
7. Atxagak plajioari buruz... (3.mailakoentzat)  
Irakurriko dute Axularrek dioena eta iritzia emango dute.  
Entzun Peruk egindako aurkezpena eta [ulermen-ariketa](#) egin.
8. Atxagaren Bibliografia. (Nahi duenarentzat)
9. *Eranskin gisa... oparitxo bat. 3.mailakoentzat* (Nahi duenarentzat)
10. *Ipuin-lehiaketa. Obabakoak liburuko ipuin baten hasiera izango dute ikasleek horri jarraipena emateko. (Lehiaketaren oinarriak aurrerago jakinaraziko dizkizuegu).*

## KLASIKOEN 6. IRAKURKETA JARRAITUA

### OBABAKOAK BERNARDO ATXAGA



2013 - EKAINAK 20  
ARRIAGAN

08:00 – 20:00 // ARRIAGA ANTZOKIA

Antolatzailea: BILBO ZAHARRA euskaltegia

Duela bost urte Axularren *Gero*, duela lau Mogelen *Peru Abarca*, duela hiru Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, duela bi Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, iaz Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* eta ikasturte honetan Bernardo Atxagaren *Obabakoak*. **BILBO ZAHARRA** euskaltegiko ikasle-irakasleok oso pozik gaude, eta harro, “Klasikoen irakurraldi etenik gabea” ekimena gero eta indar handiagoa hartzen ari delako eta, horrenbestez, pixkanaka-pixkanaka, geure helburua \_klasikoen balioak eta gaurkotasuna aldarrikatzea, alegia\_ betetzen ari garelako.


Egia da “klasikoa” hitz labaina dela eta ez dela erraza zein garai biltzen duen jakitea. Eta hala, ez litzateke harritzekoa norbaitek 1988an argitaratutako liburu bat \_Obabakoaken kasua, hain zuzen\_ klasikotzat ez hartzea. Gu ez gara eztabaida horretan sartuko. Bernardo Atxagaren lana euskal literaturako mailarik gorenean dago eta merezi du gure ekimenaren atek parez pare zabal diezazkiogun.



## 1. OBABAKOAK. 25. URTEURRENA.

2013ko ekainean, hogeita bost urte beteko dira, Obabakoak argitaratu zela. Data gogoangarria, dudarik gabe, euskaltzale guztiontzat, eta bereziki, Bilboko euskaltzaleontzat. Izan ere, liburua oso lotua dago, aldez edo moldez, Bizkaiko hiriburuari. Atxagak berak behin baino gehiagotan aitortua duenez, Bilbo erabakiorra izan zen haren bizitzan. Horiek horrela, Bilbo Zaharra Forum kulturgunek ahalegin berezia egingo du urteurrena gogorazteko.

### Obabakoak liburuaren lehen edizioa: 25 urte.



Editorea: Erein  
Urtea: 1988  
Orrialdeak: 402

*1988ko lehen edizio honetatik beste edizio asko izan dira, hainbat hizkuntzatan emanda gainera. Baina lehen edizio honetako azala berezia da guretzat, **Arriaga Antzokia** agertzen baita bertan. Honela gogoratzen du Atxagak berak Obabakoak-en azaleko irudiaren zergatia:*

*“Hilabete geroago edo, auto lepo betean 2.000 kilometro egin eta Asteasu nire jaioterrira itzuli nintzenean, hantxe neuzkan lagunak liburuarekin zain. Bere azalean, nik eskatu bezala, Arriaga antzokiaren marrazki bat azaltzen zen, zapuzedertu baino lehenago zeukan itxuraren arabera: keinu bat han biltzen ginen Pott Bandako adiskideei. Izan ere, nik idatzitakoa gure talde hartan planteaturiko hainbat kezka eta larritasunei emandako erantzuna iruditzen baitzitzaidan. Ez hori bakarrik, apika; baina hori ere bai... Obabakoak erantzun bat ere izan zen; erantzun bat azalean daraman Arriaga kafeko galderei emandakoa.”*

### 🚩 **Atxagak esandakoa irakurri eta liburuaren azala begiratuta, saiatu erantzuten ondorengo galdera hauei:**

1. Noiz eta nork argitaratu zuen Obabakoak lehenengoz?
2. Non zebilen Atxaga liburua argitaratu zutenean?
3. Nork erakutsi zion Atxagari liburua?
4. Nolakoa da azala? Nork erabaki zuen nolakoa izan behar zuen?
5. Norekiko keinua izan zen azala?
6. Ez badakizue Pott Banda zer izan zen Interneten begira dezakezue. Ezaguna zaizue taldeko inor?
7. Ba al da alderik azalean ageri den Arriaga antzokiren eta gaur egungoaren artean? Noizkoa izan daiteke argazkia, zuen ustez?
8. Zer esan nahi du “zapuzedertu” hitzak?
9. Noiz egon zinen azkenengoz Arriagan? Zertan? Eta bertako kafetegian?
10. Irudimen handikoak izango zarete-eta, esango zenukete 70 eta 80ko hamarkada horietan gazte-gazte ziren horiek zein kezka edo larritasun izan zitzaizketen?

## 2. BADAIZU NOR DEN... BERNARDO ATXAGA?



Atxaga, euskal idazlerik sarituena eta itzuliena, Asteasun jaio zen, Gipuzkoan, 1951ko uztailaren 27an. Bernardo Atxaga izena Joseba Irazu Garmendiaren goitizena da.

Maistra (Izaskun) eta arotz (Jazinto) baten semea, txikitatik hasi zen idazten, etxean jasotako irakurzaletasunak bultzaturik. Andoaingo udal liburutegian literatura unibertsalaren obra anitz irakurri zituen eta batxilergoa ikasten ari zelarik hasi zen literatura lehiaketetarako eta eskolako aldizkarirako idazlanak egiten.

Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen (euskara irakaslea, irratiko gidoilaria, liburu-saltzailea, ekonomialaria, etab.), harik eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte.

1972 urtean **Borobila eta puntua** antzezlanak idatzi zuen. Anjel Zelaietaren bitartekaritzaz, Gabriel Arestik lana irakurri eta kritika ona egin zion. Arestik berak euskarazko klasikoak irakurtzeko aholkua eman eta idazten jarraitzera animatu zuen. Berari esker argitaratu zen lehen idazlan hori, lehen aldiz **Bernardo Atxaga** sinatuko zuena.

1977an idaztetik bizitzeko erabakia hartu eta bankuko lana utzi egin zuen. 1977tik 1980ra bitartean, Pott Bandaren partaide zela, talde hori argitaletxe moduan antolatuz, **Etiopia** poema antologia argitaratu zuen. 1980an, berriz, taldea sakabanatu zela, Bartzelonara joan zen filosofia-ikasketak egitera.

1983an Euskal Herrira itzuli zen eta 1988an, laudorioak jaso, sari handiak irabazi eta hainbat hizkuntzatarantz itzulia izan den **Obabakoak** argitaratu zuen. Espainiako sari nazionala, Euskadi saria, Kritikaren saria eta Prix Millepages jaso ditu, eta hogeitazko hizkuntza baino gehiagora itzuli da; hori guztia dela eta, idazleak merezitako errespetua erdietsi du, eta errespetu hori berretsi egin da, inolako salbuespenik gabe, lan berri bat argitaratu duen bakoitzean.

1990eko hamarkadan Obabako zikloa itxi eta besteak beste Euskal Herriko gatazkari erreferentzia egiten dioten eleberririk idatzi zituen: **Gizona bere bakardadean** (1993), **Zeru horiek** (1995) eta **Soinujolearen semea** (2003).

1997 urtean Emory Unibertsitatean lau hilabete eman zituen irakasle moduan, Estatu Batuetako hainbat tokitan hitzaldiak emateko ere baliatu zituena. 2007 eta 2008 urteetan urtebete eman zuen Estatu Batuetan, Renon hain zuzen, non **Zazpi etxe Frantzian** idazlanak prestatu zuen eta 2009an argitaratu zuen.

Eleberrak eta narrazioak, poesia, saiakera, antzerkia eta haur literatura... maixuki landu ditu literatur genero guztiak. Barne-mundua bikain erabiltzen du eta, ondorioz, hizkuntza jaso legez euskarak duen adierazkortasunaren eta sendotasunaren erreferentzia saihestezin eta bikain bihurtu da Bernardo Atxaga.

1995etik aurrera, Zalduondon, Arabako lautadan, bizi da, Andoin-Luzuriaga jauregian hain zuzen. Asun Garikano euskara irakasle eta itzultzailearekin ezkondata dago 2002 urteaz geroztik (Atxagaren idazlan zenbait itzuli ditu gaztelaniara) eta harekin bi alaba ditu, Elisabete (1998) eta Jone (2000).

### **EGIA ALA GEZURRA?**

1. Aurtengo udan beteko ditu Atxagak 52 urte.
2. Benetako izena ez da Bernardo Atxaga Joseba Irazu baizik.
3. Asteasu herrian eman ditu bere bizitzako urte gehienak.
4. Andoaingo udal liburutegian ibili zen lanean gaztetxotan.
5. Gabriel Aresti ezagutu arren, ez ziren batere ondo moldatzen.
6. Ekonomia eta Filosofia ikasketak egin zituen.
7. Bankuko lan galdu zuen, zoritxarrez, eta *Verdes* liburu dendan egin zuen lan.
8. Atxagaren lanik ezagunena orain 25 urte idatzitako *Obabakoak* liburua da.
9. Atxagaren lana hainbat hizkuntzatarara itzuli dute.
10. Atxagak genero guztiak landu ditu, poesia izan ezik.

### **AUKERA IZANGO BAZENUTE...**

***... zer galdetuko zeniokete Atxagari berari?***

***Zure galdera:***

### 3. HIRU IRUZKIN.

🚩 Hona hemen Obabakoak liburuari buruzko bi iruzkin. Irakurri lasai eta komentatu taldean zer ulertu duzuen. Jakingo zenukete zuen hitzekin azaltzen nolakoa liburua den?

A.

Obabakoak euskal literaturaren historian libururik ezagunena izan da Euskal Herritik kanpo, jadanik hogeitaz hiru hizkuntza baino gehiagotara itzulia izan delarik. Landa- munduan giro tutako ipuin bilduma da, errealismo magikoaren eragin nabariarekin eta literatura unibertsalari egindako milaka keinu inertestual baliatuz. Zenbait kritikarik neorruralismoa deituriko korrontearen barruan kokatu dute.

([eu.wikipedia.org](http://eu.wikipedia.org))

B.

"Obabakoak" liburua urte askoren emaitza da eta Ipuingintzaren tradizio luze eta zabalaren sintesia lortzen du. Literatura eta bizitza bera imajinatzeko modu bat, begiratu bat. Munduari eta gizakiari erantzuna emateko abiapuntu eta estilo berezia. Literatur tradizio zaharra, ahoz kotasuna, Modernitatea, zer ez; dena dago egilearen eskura eta guztion ondare da dagoeneko. Ondare aberats horrekin zer egin, horra Atxagaren azierto zoragarria.

([www.atxaga.org](http://www.atxaga.org))

C.

#### Obabakoak

Obaba lurraldeko bizilagunen istorio liluragarriak biltzen ditu Atxagak: irakasle batek gutunen bidez baino ezagutzen ez duen neskarekin izandako harremana, maistra gaztearen bakardadea, basoan galdutako haurrekin apaizak duen harremana, eskolako argazki bat tamainaz handitzean ikusten duenak nola aldatzen duen idazle baten bizitza...


(Ikasbil. Irakurgai mailakatuak – 3.maila.)

## 4. . OBABA

 **Obaba gure irudimenean. Defini ezazue Obaba bost zentzumenak erabiliz:**

- *Obaba SOINU edo DOINU bat balitz...*
- *Obaba JAKI bat balitz...*
- *Obaba PAISAIA bat balitz...*
- *Obaba USAIN bat balitz...*

### 4.1. Obabatxoa

 **Honela gogoratzen du Atxagak *Obaba* izenaren sorrera:**

*“Bilbon bizi nintzen, hemengo apopilo-etxe batean, eta etxe horretako ugazabandrea Zeanurikoa zen, eta gainera zen Deustuko karamelu saltzailea. Ni bere etxean egoten nintzen apopilo, esan dudan bezala, eta halako batean magnetofoi bat erosi nuen eta, probatzearren edo, esan nion andre horri, alegia, zerbait kanta zezala. Nik espero nuen berak halako kanta arrunten bat edo ezagunen bat kantatuko zidala; eta hor non andre hori hasi zen Obabatxue, Obabatxue sehaskakanta kantatzen.”*

### **Obabatxua**

(Herrikoia)

**Obabatxua lotiritaina**  
**ez egin lorik basoan,**  
**otoso goseak jan ez zagizan**  
**bildotsa zarelakoan.**

**Obabatxua ururru**  
**gaur zoaz eta bihar erdu;**  
**alboan doan tontoa baino**  
**maiteago zaitut nik zu.**


**Obabatxua lologina**  
**zu zara nire tanbolina;**  
**tanbolina ta gaita**  
**Zu zara nire maitea.**

**Obabatxua lo ta lo**  
**Zeuk orain eta nik gero;**  
**Lotxu gozuak enganau deuste**  
**Neure umetxo ona gero.**



## 4.2. Muskerrarena

- ✚ **Sehaska-kantak umeak goxo-goxo lokartzeko abestu ohi dira. Kontuz, baina, loak hartzea ere arriskutsua izan daiteke: Obaban, adibidez, belarretan ez etzateko gaztigatzen zieten umeei, ze, lokartuz gero, muskerra hurreratuko zitzaien agian eta...**



### Erantzun taldean...

- ✚ **Zein da zuen ustez animaliarik arriskutsuena?**
- ✚ **Eta muskerra, animalia beldurgarria iruditzen zaizue orain?**
- ✚ **Zuen ustez, zer gertatu zitzaion, benetan, Albino Mariari?**

“(... )muskerrak buruko muinen zale zirela esaten baitziguten Obaba hartan; ahal izatera, jendearen belarri zulotik sartu eta buruan gelditzen zirela, jan eta jan, eta ez zutela ateratzekorik egiten ondo ase arte. Ordurako, ordea, berandu izaten zela; muskerra edukitakoa ergeldu egiten zela betirako, inuzentetu. Eta herriko hainbat xeble seinalatzen zizkiguten: hantxe geneukala frogantza, haiek guztiek hozka eginda zeukatela buruaren puska bat.

Guztiarekin ere –sobera ikara ez gintezen edo– muskerragandik begiratzeko bi modu bazeudela gaineratzen ziguten. Bata, belar gainean lo ez gelditzea. Bestea –animaliak buruan sartzea lortzen zuen aldiatarako– lehenbailehen ibili eta zazpi herritako erretore jaunei kanpaiak jo zitzaaten eskatzea; zeren orduan, kanpai iskanbila ezin sufrirituz, jatun maltzurak ihesari ekiten baitzion zalaparta batean.

Erretratuari begira holako pentsamenduak nerabiltzan neure artean, eta bidezkoa iruditzen zitzaidan bertako eszena bihurrikeria baten ildotik interpretatzea. Okerrak eskuan zeukan muskerra oso hurbil baitzegoen Albino Maria izeneko beste mutil baten belarritik.

Ordea, oztopo bat aurkitzen nuen arazoa modu hartan erabakita uzteko. Eta hori zen niri gogoratu egiten zitzaidala Albino Mariari gertatutakoa. Hain zuzen ere, eskolako ikasle azkar izatetik makalena izatera pasa zela oso denbora gutxian; eta horren ondoren, gero eta okerrago jarritz, ahaztu egin zitzaiola idaztea eta irakurtzea; azkenean, hamalau urterekin edo, erabat inuzentetu eta herriko xeble bihurtu zela.

Erretratuan azaltzen zena ikusi, eta bizitzaren ironiak etortzen zitzaizkidan gogora: belarri ondoan zeukan muskerrak adierazi egiten zuela, auskalo zein halabeharrez, Albino Mariari gero gertatuko zitzaion guztia. Sinboloaren mailan izanda ere, Okerraren jestuak lotu egiten zituela iragana eta etorkizuna.”

*Obabakoak, 203-204.orr.*

### 4.3. Obaba eta Bilbo

- ✚ *Obaba ez da noski Bilbo. Alde handia dago zenbait ipuinetan Atxagak irudikatzen duen "Obaba" mundu zahar horretatik geroago Bilbon ezagutuko zuen "ziutatera".*

<i>Obaba</i>	<i>Bilbo</i>	
<i>Heria</i>	<i>Hiria</i>	<i>Alderatu bi paisaiak.</i>
<i>txoriak</i>	<i>Grisa</i>	<i>Lotu bakoitzarekin</i>
<i>aspaldiko mundua</i>		<i>burura datozkizuen</i>
		<i>ideiak edota</i>
	<i>modernitatea</i>	<i>kontzeptuak.</i>

- ✚ *Atxagaren hitzetan, Bilbo hiria izan zen idazle moduan taxutu zuena; horrela, bere bigarren jaiotza bertan gertatu zela aipatu izan du idazleak.*
- ✚ *Atxaga asko bizi izandakoa da Bilbon. Posta kalean, Bilbo zaharra euskaltegi parean zegoen Verdes liburu-denda mitikoan lan ere egin zuen Atxagak. Bertan garai hartan aurkitzen zailak ziren euskarazko liburuak erosi ahal ziren. Pott Banda talde apurtzaile eta abangoardista ere Bilbon sortu zen 1977. Orduan bandakide izan zituen, besteak beste, Joseba Sarrionandia, Joxemari Iturralde, Jon Juaristi eta Manu Ercilla.*

## Ziutateaz I



Editorea: Kriseilu

Urtea: 1976

ISBN: 978-84-7407-009-5

"Nahiz eta nik neure bihotza zabaldu, ba dakit hori ez dela nahikoa; konprenitzen dut urrun dauden bihotz eta gorputzen maitasuna antzua dela, gezurra dela, amodiozko gutunak faltsuak diren bezala. Konprenitzen dut ez dela posible elkar inguratze espiritualik inguratze fisikorik ez bada, hitz batetan esanda, **konfiantza proximitatea da, eta maitatzea hurbiltze amaigabe bat.** Baten larruak bestearena igurtzi duenean, arnasak nahasten direnean, odolak odolari entzuten dionean, farrak akorde baten gisa sortzen direnean, malko guztiak hibaia berberan kanalizatzen direnean, orduan, orduntxe bertan, jaten du bihotz batek bestea, ongi konprenitu dut egia honen zientifikotasuna, nik asko pentsatzen dut, ni ez naiz edonor".

- ✚ *Komentatu taldean irakurri duzuen, eta eman zuen iritzia.*

 **Berandu dabilta**

(Atxaga. "Ziutateaz" poesia liburukoa)

Eguneroko bizitza ikatza  
 bezelako  
 labexomorroak ixurtzen hasi  
 zenean etengabe,  
 Otis Redding badiako kaian  
 eseri zen  
 aideplano eroriei kantatzeko  
 blues band.  
 Sagarraren loreek su hartu  
 zuten eta  
 niri odola hasi zitzaidan  
 sudurretatik  
 baldosa zuriko komuna  
 publikotan  
 pornografia irakurtzen ari  
 nintzanean love,  
 eta alkimistek txosten bat  
 eman zuten  
 argitara plusvaliaren alde  
 azalduz erabat,  
 Errestaurantetik bi  
 homosexual bota  
 zituzten arrazoi komertzialak  
 zirela merio.  
 Bakardadearen milaka kopia  
 inprimatu  
 ziren neguaren ateetan  
 geundelako,  
 ene osaba batek postale bat  
 izkribatu  
 zidan Stop ene urtebetetzea  
 zelako Stop iloba,  
 eta bide batez bere  
 seguruetxea kontseilatu  
 nahi zadalako inoiz ez da  
 jakiten noiz,  
 ene maitaleak telefonoa jo  
 zidan kobre  
 zaporeko maitasunez gauaren  
 erdian.  
 Eguneroko bizitza ikatza  
 bezelako  
 labexomorroak ixurtzen hasi  
 zenean etengabe.  
 Gero ernari gelditu zen ibaia  
 zerutik  
 atergabe jautsitako espermaz,  
 alkandora  
 arrosak loredunak xuriak  
 gorribeltzak  
 multikoloreak herrestan  
 eramanez,  
 eta aste berean ni puta bat  
 naiz oihuztatu  
 zuen ezkontza despedidan  
 Champagne,  
 Olivetti batetan bere lehen  
 gutun erromantikoa  
 osatu zuen sekretaria  
 lotsatiak;

eskaleek halere trapuzko  
 etxeak jaso  
 zituzten zubipean mitxeletak  
 babesteko,  
 kattagorriek supermerkatuari  
 eraso zioten  
 altxa besoak non da intxaur  
 kaxafuerte.

Negua heldu zen azkenez eta  
 antzerrek V bat egin zuten  
 zeruan,  
 dispensariotan antitristezi  
 pildorak  
 banatu zituzten ugari  
 Ejiptoko zazpi izurriteren  
 edizio  
 ugaldu eta korrejitua usmatuz;  
 zoriona gramoka saltzeari ekin  
 zioten trono aingeru eta  
 kerubinek;  
 beturte kardinek igotze  
 desnaturala  
 eman zuten Erromako boltsan,  
 mila liburu erregalatu  
 zituzten bankuek  
 Ora eta bereziki Labora  
 lemapean;  
 baina alferrik zen berandu  
 dabilta  
 ez dute ezer lortuko honez  
 gero,  
 palazioak lurrera doaz  
 gartzeletako  
 ormak pitzatu egin dira,  
 eta gu libro gabiltza kaleetan  
 tirantezko  
 galtza laranjaz jantzirik,  
 libro libro.

Ruper Ordorika

#### 4.4. Villamediana-irla.

✚ **Obaba ez da liburuan ageri den paisaje bakarra. Hanburgo, Bagdad, Albania, Isfahan... baita Villamediana ere. Irakurri, bestela, beheko pasarte hau:**

Atzera begiratzerakoan, Villamediana izena duen irla bat aurkitzen dut nire bizitzan. Hiztegia daudenen artean bost hitz aukeratzeko esango balidate, eta baliatzeko haiekin herri hari buruz, urgentziatzko deskribapen gisara edo, zerbait adierazteko, ezinbestekoa litzaidake eguzki hitza beste guztien aurretik hartzea. Zeren ia egunero ikusten bainuen, hala esnatzerakoan, pertsianako zirrikitueta, nola, kalera eginez, zeru urdinaren erdian, bertan urrezko iltze bat bezala sartuta; edo su ematen sastraka lehorrei, edo adobezko murrak gorritzen arratsaldearen muga. Eta bigarrentzat, garisail aukeratu beharko nuke, eta haien maiatz aldeko berdemena aipatu, eta geroxeago horitasuna, hasi herriaren ertzetan eta –uda osoz– begia doi iristen zen konfinetaraino zabaltzen zena. Azkeneko hiru hitzak, berriz, hustu, bele eta ardi izan beharko lukete; Villamedianan etxe gehienak hustuta zeudelako, eta beleak eta ardiak zirelako, maiz, paisaia hari bizitasun amini bat ematen zioten izaki bakarrak.

*Obabakoak. B. Atxaga. EREIN*

- ZURE IRLA = izen bat + bost hitz aukerako

ATXAGAREN IRLA \_\_\_\_\_

ATXAGAREN. 5 HITZAK:

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_
5. \_\_\_\_\_

ZERGATIK AUKERATU DITUEN .  
ARRAZOIAK:

- A. \_\_\_\_\_
- B. \_\_\_\_\_
- C. \_\_\_\_\_
- D. \_\_\_\_\_
- E. \_\_\_\_\_



## 6. IPUIN BAT, BERTSIO BI...EDO HIRU.

- ✚ *Binaka jarrita, "Gauero aterako nintzateke paseatzera" ipuinaren azalpen bana irakurriko duzue eta ondoren elkarri kontatu.*
- ✚ *Zenbait pertsonaia azalpen bietan azalduko zaizkigu, ikuspuntu ezberdinetatik baina. Zein dira? Komentatu taldean eta adierazi zer esan diguten haiei buruz ipuin bakoitzean.*
- ✚ *Orain, taldean, labur-labur, III. AZALPENA, irakurlearena, egingo duzue, bi bertsioak uztartuz eta nahi duzuen nabarmenduz. (150 hitz inguru)*

### III. AZALPENA

*Gauero aterako nintzateke paseatzera .I. Katharina-ren azalpena (Obabakoak, 111-115.orr.)*

*Gauero aterako nintzateke paseatzera II. Marie-ren azalpena (Obabakoak, 117-121.orr.)*

## 7. ATXAGAK PLAJOARI BURUZ...

### Obabakoak

- ✚ Liburuan, plagioari buruzko ipuin batean, honako iritzi hau irakurriko dugu. Atxagak Axularren hotsean jarriko ditu, gainera, hitz hauek:

*“... plaiak abantaila anhitz ditu sortze hutsazko lanaren aldean. Aiseago egiten da, arrazago; hogoi plaiak buru daitezke sortze lan bakar batek behar duen denboran. Eta, horietan ez bezala, emaitza oso onak lortzen dira maiz, zeren ereduaren dohainek asko laguntzen baitute.”*

- ✚ Bestalde, Bilbo Zaharra Forum-ek, Obabakoak liburuaren 25 urteurrena dela eta aurten antolatutako hitzaldietan ere “Plagioa/originaltasuna” izan dugu hizpide.

Orain arretaz entzungo duzue aipatutako hitzaldi horietako batean aurkezpenean esandakoa. Gero, saiatu asmatzen honako baieztapen hauek zein urteri dagozkion :

a. 1978
b. 1988
c. 1998

- ✚ Urte luzeetan izan du Atxagak plagioa gogoeta, txantxa edo probokaziorako gaia.

GERTAERA	
Obabakoak argitaratu zuen Atxagak.	
Ika-mika edo polemika handia egon zen plagioaren inguruan.	
Groenlandiako lezioa atera zuen eta plagioa aipatu zuen berriro.	
Elkarrizketa batean Atxagari Euskal Literatura indartzeko zer egin zitekeen galdetu zioten; eta berak, itzuli ez, plagiatu egin behar zela erantzun zuen.	
Atxagak pose “errebeldea” omen zuen garai hartan.	
Bi ipuin argitaratu zituen plagioari buruz.	
XIX. mendeko idazle baten ipuin labur bat hartu eta hitzez hitz 12 orduan plagiatu zuen.	
Lagun baten arabera, Atxagak plagiaturako ipuina zen ordura arteko ipuinik onena.	
Ondo plagiatzeko metodoa eta adibide bat eman zuen Atxagak	

## 8. Atxagaren Bibliografia osoa

### Nobelak eta Narrazioak

- Ziutateaz. I (1976, Luis Haranburu)
- Ziutateaz. II (1976, Luis Haranburu)
- Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian (1984, Erein)
- Sugeak txoriari begiratzen dionean (1984, Erein)
- Bi anai (1985, Erein)
- Obabakoak (1988, Erein)
- Behi euskaldun baten memoriak (1991, Pamiela)
- Gizona bere bakardadean (1993, Pamiela)
- Zeru horiek (1995, Erein)
- Historias de Obaba (1995, Ediciones B)
- Sara izeneko gizona (1996, Pamiela)
- Cuentos apatridas (1999, Ediciones B)
- Soinujolearen semea (2003, Pamiela)
- Teresa, poverina mia (2004, Argia)
- Zazpi etxe Frantzian (2009, Pamiela)

### Poesia

- Etiopia (1978, Pott Liburutegia)
- Henry Bengoa Inventarium (1986)
- Poemas & Híbridos (1990, Visor)
- Nueva Etiopía (1996, Detursa)
- Paradisua eta katuak (2012, Pamiela)

### Saiakera

- Groenlandiako lezioa (1998, Erein)
- Alfabeto sobre la literatura infantil (2002, Media Vaca)
- Lekuak (2005, Pamiela)
- Markak. Gernika 1937 (2007, Pamiela)

### Antzerkia

- Lezio berri bat ostrukari buruz (1994, BBK)

### Haur literatura

- Nikolasaren abenturak eta kalenturak (1979, Antonio San Román)
- Ramuntxo detektibea (1979, Antonio San Román)
- Chuck Aranberri dentista baten etxean (1982, Erein)
- Antonino Apretaren istorioa (1982, Erein, "Siberiako ipuin eta kantak")
- Asto bat hypodromoan (1984, Erein, "Siberiako ipuin eta kantak")
- Jimmy Potxolo (1984, Erein, "Siberiako ipuin eta kantak")
- Txitoen istorioak (1984, Erein, "Siberiako ipuin eta kantak")
- La cacería (1986, Altea)
- Astakiloak Arabian (1987, Elkar)
- Flannery eta bere astakiloak (1991, Elkar)
- Astakiloak jo eta jo (1993, Elkar)
- Mundua eta Markoni (1995, BBK fundazioa)
- Xolak badu lehoien berri (1995, Erein)
- Xola eta basurdeak (1996, Erein)
- Markonitar handien ekintza handiak (1997, BBK fundazioa)
- Bambulo: Lehen urratsak (1998, Erein)
- Bambulo: Krisia (1998, Erein)
- Bambulo: Ternuako penak (1999, Erein)
- Xola ehitzan (2000, Gara)
- Xola eta Angelito (2004, Erein)



## 9. Eranskin gisa... oparitxo bat.

### DOKUMENTALA

## LEKU HUTSAK, HITZ BETEAK

**Bernardo Atxagari** buruzko *Leku hutsak, hitz beteak* dokumentala 60. Zinemaldian estreinatu zutene. Zinemira sailean programatu zuten eta euskaraz proiektatu zuten lan bakarretakoa izango zen.

Asteasutik Bilbora, Bilbotik Obabara, Joxe Anjel Arbelaitez zuzendariak Bernardo Atxaga idazlearen literaturaren sorburu eta giltzak aletu ditu.

Dokumentalaren trailerraren abiapuntuan erakutsi bezala, esaera zaharrak zera dio: “**soineko guziek badute beren ifrenzua**”. Hori bera izango da Atxagaren akuilu dokumentalean: nobela eta poemen sorburua azalduko du Bernardo Atxagak, ifrenzua.

Arbelaitez **Berrian** argitu duenez, “Idazle bezala zer kezka, burutazio, lan egiteko modu dituen erakustea da dokumentalaren asmoa”.

Azken finean dokumentala “elkarrizketa luze bat” dela dio zuzendariak, zeinak monografiko bat aurkezten duen. Atxaga protagonista izanda ere gaia unibertsala dela dio “idazle baten gorabeheraz ari baita”. Prozesu literarioen pausoak segituz, Zalduondon, Bilbon, Asteasun eta beste zenbait txokotan garatuko da dokumentala.

**Joxe Angel Arbelaitez** zuzendu du ordubeteko lana eta Juanfe Garcesen irudiek lagunduko dute kontakizuna.

### ATXAGAREN AZKENA

## Paradisua eta katuak (Pamiela 2012)

Paradisua eta katuak, lehenengoz eta behin, kontraera bat da. Ez ordea tonu edo forma beti berdinekoa, osagarri baititu hainbat atal berezi: ipuinak, poemak, pasarte komikoak eta gogoetak. Batzuetan, katu kontuak aipatzen dira; bestetan, adineko andre batenak edo zeharo pozik dagoen apaiz batenak...

Liburuarekin batera DVD bat doa. Bertan Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan, 2012ko irailaren 3an, Euskal Idazleen Elkarteak eta Donostiako Udalak antolatzen duten Poesia orduak ekimenaren baitan, eginiko emanaldia jasotzen da. Jabier Muguruzaren musika eta kantuak zabaldu egiten dute Bernardo Atxagaren testua.

<http://www.atxaga.org/bibliografia/paradisua-eta-katuak> (Aurkezpen laburra)

**10. Ipuin-lehiaketa**

**Obabakoak liburuko ipuin baten hasiera izango dute ikasleek horri jarraipena emateko.**

***HASIERA***

***Aspaldi, artean gazte eta berde ginela,...***